

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 38/2019 Foru Dekretua, abuztuaren 2koa. Onestea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zuen Diputatu Kontseiluaren otsailaren 12ko 12/2016 Foru Dekretuaren aldaketa

Diputatu nagusiak, uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak finkatu ditu 2019-2023 legegintzaldirako, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren esku utzi ditu, besteak beste, erreklamazio ekonomiko-administratiboei loturiko eginkizunak eta eskumen arloak, eta sail horri atxiki zaio Arabako Lege eta Administrazio Erakundea.

Diputatu Nagusiaren Sailaren egitura organikoa onesten duen Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 8/2016 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritz, orain arte Kabinetearen Zuzendaritza izan da aurreko paragrafoan aipatutako eginkizun eta eskumen arloei loturiko jarduerak kudeatu eta gauzatzeko zuzendaritza unitate arduraduna.

Hori ikusita, eta legegintzaldi honetan bide ekonomiko-administratiboa Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari esleitzea komeni dela iritzita, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.2. artikuluan xedatutakoaren babesean (sailen egitura organikoa onestea Gobernu Kontseiluari dagokiola xedatzen du artikulua horrek), aldatu egiten da Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 12/2016 Foru Dekretua, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duena.

Dekretu hau izapidetzeko, bete egin dira maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinaren 3. artikuluan jasotako araupetze onaren printzipioak. Foru dekretu horrek hauek onartzen ditu: izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura, araupetze eta genero eraginaren txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikarako jarraibideak. Horiek horrela, aurrekarietan justifikatu da arautzeko beharra eta, gainera, neurrizko arautze jarduketa da; izan ere, lortu nahi den helburua erdiesteko gutxieneko ezinbestekoak baino ez dira arautzen, alegia, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura egokitzea Diputatu Nagusiaren 324/2019 Foru Dekretuak xedatutakora.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu; izan ere, edukia antolamenduari baino ez dagokionez, posible da jendaurrean jartzeko izapidea ez gauzatea. Edonola ere, onartu bezain laster ALHAOn argitaratzeko aginduko da.

Efizientzia printzipioari gagozkiola, proposatutako arautze horrek, duen izaera dela-eta, ez dakarkie herritarrei ez administrazio karga osagarririk ez premiagabekorik.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 12/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua. Honela geratuko da idatzita:

1. artikulua. Jardun eremuak

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari zerga administrazioa, ekonomia ituna, finantzak, kontuhartzailletza eta kontrola, aurrekontuak, kontabilitatea, ondarea, estatistikak eta azterlanak, Europako gaiak, bide ekonomiko-administratiboa eta ordenamendu juridikoak adierazten dituen gainerakoak esleitu zaizkio, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuan, aldundiaren sailak eta jardun eremuak zehazten dituenean, ezarritakoaren arabera.

Bigarrena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 12/2016 Foru Dekretuaren 2. artikulua. Honela geratuko da idatzita:

2. artikulua. Egitura

1. Aurreko artikuluan adierazitako jardun eremuei buruzko eginkizunak eta eskumenak betetzeko, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailean organo hauek bereiziko dira, eta denak sail horretako titularra den foru diputatuaren zuzendaritzapean egongo dira:

- a) Ogasun Zuzendaritza.
- b) Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza.

2. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularra den foru diputatuaren menpe dago zuzenean Arabako Lege eta Administrazio Erakundea.

Hirugarrena. IV. KAPITULUA gehitzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 12/2016 Foru Dekretuari. Testu hau izango du:

IV. KAPITULUA. ARABAKO LEGE ETA ADMINISTRAZIO ERAKUNDEA**26. artikulua. Arabako Lege eta Administrazio Erakundea**

Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari dagokio bide ekonomiko-administratiboan aurkezten diren erreklamazioak aztertu eta ebaztea, bat etorritik Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra garatzen duen Erregelamenduak xedatutakoarekin (erregelamendu horrek bide ekonomiko-administratiboko erreklamazio eta errekurtsoen prozedura arautzen du Arabako Lurralde Historikoan, eta Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 2/2007 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenek ezarritakoarekin.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau indarrean egongo da onetsi eta hurrengo egunetik aurrera, ALHAOn noiz argitaratzen den kontuan hartu gabe.

Gasteiz, 2019ko abuztuaren 2a

Diputatu Nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO